

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN**44/2020 TXOSTENA**

Espediente tramitatzaileria: Idazkaritza saila

Gaia: Udalak kasinoa eraikinean dauzkan lokalen kalifikazio juridikoa aldatzea

Espediente zenbakia: IDA_ERA_0017 (2020)

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.1 artikulua

Aurrekariak

Lehenengoa: 2020ko otsailaren 10ean idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak Kasinoa izeneko eraikinean Bermeoko Udalak dauzkan ostalaritzako lokalen egoeraren inguruko txostena egin du.

Txosten horretan lokal horien kalifikazio juridikoa aldatzeko oportunitatea eta legezotasuna kreditatu dira.

Bigarrena: 2020ko otsailaren 12an, udal arkitektoak emandako txostenean HAPOaren arabera kalifikazio juridikoa aldatzeko eragozpenik ez dagoela adierazi da.

Hirugarrena: Ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea informazio publikora zabaldu da, hilabeteko epean, 2020ko otsailaren 24ko BAOan argitaratutako iragarki bidez.

Laugarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen zuen administrazio epeen etetea 2020ko ekainaren 1eko eraginarekin altxatu zen. Hori horrela, alegazioak aurkezteko epea ekainaren 11n amaitu zen. Eta ekainaren 12ko idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariaren txostenean esaten den moduan epe horretan ez da alegaziorik jaso.

Bosgarrena: 2020ko ekainaren 12an idazkaritza saileko teknikariak Kasinoa izeneko eraikinean Bermeoko Udalak dauzkan ostalaritzako lokalen kalifikazio juridiko



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 25/06/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/06/2020
12:19:14

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0017
Data: 10/02/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E400046C8B00K5N9M3U2Q2Z8

aldaketa onartzeko (zerbitzu publikora lotutako jabari publikoko izaeratik ondarezko izaerara pasatzeko) erabaki proposamena egin du.

Oinarri juridikoak

1. Aplikagarria den araudia

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen (4.1.a, 22.2.l, 47.2 n eta 81 artikulua)

- Ekainaren 13ko 1732/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Ondasunen araudia onartzen duena (8, 36. artikulua)

- Azaroaren 28ko 2568/1986ko Errege Dekretua, Toki erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta araubide juridikoaren araudia onartzen duena (50.13, 173.1b)

- Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki Erakundeen lege xedapenen Testu Bateratua onartzen duena (54. artikulua)

- Analogikoki, azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Administrazio Publikoen Ondarearen Legea (5.4, 69 eta 70. artikulua)

2. Azterketa juridikoa

A. Oinarrizko kontzeptuak

Toki Erakundeen Ondasunen araudiaren 2. eta hurrengoko artikuluen arabera, udal ondasunak jabari publikokoak edo ondarezkoak izan daitezke.

Jabari publikokoak izango dira erabilera publikokoak (bideak, enparantzak, kaleak, parkeak, iturriak...) eta zerbitzu publikokoak (udaletxeak, azokak, lonjak, museoak, eskolak, hilerriak, igerilekuak, kiroldegia eta oro har zerbitzu publiko edo administratiboa emateko helburua dutenak).

Jabari publikoko ondasunak besterendu ezinak, enbarga ezinak eta preskribitu ezinak dira, gainera ez dagokie tributuak ordaintzea.



Idazkaritza Sailea. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 25/06/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/06/2020
12:19:14

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0017
Data: 10/02/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E400046C8B00K5N9M3U2Q2Z8

Ondarezko ondasunak dira Udalaren jabetzakoak direnak baina ez daukatenak helburu moduan erabilera publikoa edo ez daukatenak lotura zerbitzu publiko batekin. Horiekin Udalak diru-sarrerak izan ditzake.

A) Jarraitu beharreko prozedura eta espedienteak kontuan izan beharrekoak

Jabari publikoko ondasunetik ondarezko ondasuneko izaera izateko prozedura Toki Erakundeen Ondasunen araudiaren 8. artikuluan jaso da. Artikulu horrek dio:

*1. La alteración de la calificación jurídica de los bienes de las Entidades locales requiere expediente en el que se acrediten su **oportunidad y legalidad**.*

*2. El expediente deberá ser resuelto, previa **información pública** durante un mes, por la Corporación local respectiva, mediante acuerdo adoptado con el voto favorable de la **mayoría absoluta** del número legal de miembros de la misma.*

*3. En cualquier caso, la incorporación al patrimonio de la Entidad local de los bienes desafectados, incluso cuando procedan de deslinde de dominio público, no se entenderá efectuada hasta la **recepción formal** por el órgano competente de la Corporación de los bienes que se trate, y en tanto la misma no tenga lugar seguirán teniendo aquellos el carácter de dominio público.*

4. No obstante, la alteración se produce automáticamente en los siguientes supuestos:

A) Aprobación definitiva de los planes de ordenación urbana y de los proyectos de obras y servicios.

B) Adscripción de bienes patrimoniales por más de veinticinco años a un uso o servicio público o comunal.

C) La Entidad adquiera por usucapión, con arreglo al Derecho Civil, el dominio de una cosa que viniere estando destinada a un uso o servicio público o comunal.




Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 25/06/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/06/2020
12:19:14

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0017
Data: 10/02/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaada:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E400046C8B00K5N9M3U2Q2Z8

Beraz, artikuluko hori kontuan izanik hurrengo ondoriozta daiteke:

- **Oportunitatea eta beharizana justifikatzea:** Beharrezkoa da espedientean kalifikazio aldatzeko (desafekizoa kasu honetan) oportunitatea eta beharizana justifikatzea.

Hori egingo da Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduko 50.13, Toki Erakundearen Ondasunen Araudiko 8.1 eta Toki Erakundearen Oinarrien Legearen 81.1 artikuluekin bat.

Oportunitatea eta beharizana justifikatzean, espedientean argi eta garbi jaso behar da egin nahi den desafekzioa bat datorrela interes orokorarekin, egoera eta momentu honetako beharizanak kontuan izanda.

Horren inguruan, interesgarria da gogoraraztea Auzitegi Gorenaren 2001eko otsailaren 26ko epaia (5824/1995 Errekurtsoaren inguruan, 3. Gela, auzi-administratiboko sala). Epaia horrek dio: *"... es cierto que la discrecionalidad administrativa no puede ser objeto de revisión en sede jurisdiccional con base en consideraciones o motivos de la mayor o menor conveniencia u oportunidad. Como ha tenido ocasión de señalar esta Sala, el control judicial de la actuación administrativa es de legalidad plena, como resulta de los arts. 24.1 y 106 CE, extendiéndose respecto de la discrecionalidad solo hasta donde lo permite el contraste con el ordenamiento jurídico a través de las plurales técnicas admitidas por la jurisprudencia -- fundamentalmente, elementos reglados, desviación de poder, hechos Determinantes y principios generales del Derecho-- Si bien, la interdicción de la arbitrariedad de los poderes públicos (art. 9.3 CE) justifica, además, la exigencia de una motivación suficiente respaldada en datos objetivos con los que ha de mantener una cierta coherencia lógica la decisión administrativa adoptada, aunque, desde luego, ha de reconocerse que la Administración conserva un ámbito de opción que posibilita alternativas diversas, jurídicamente legítimas, en función del interés contemplado por la norma habilitante de la potestad que ejerce. Por consiguiente, no era controlable por Tribunal de instancia la oportunidad de la solución urbanística que el Ayuntamiento pretendía ni la del medio utilizado para llevarla a cabo*



Idazkaritza Sailea. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 25/06/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/06/2020
12:19:14

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0017
Data: 10/02/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E400046C8B00K5N9M3U2Q2Z8



(la sustitución del precio de la expropiación forzosa de la superficie cedida para vial por la permuta del tramo de calle una vez desafectado). Pero ocurre que la sentencia impugnada, además de utilizar la técnica de la desviación de poder, examina, en primer lugar, el criterio de oportunidad que incorporan los citados artículos 81 LBRL y 8 RBCL a través de un presupuesto o circunstancia objetiva de la que parte la decisión administrativa de desafectación cual es el desuso del camino de Pedroso; y éste sí es un dato controlable jurisdiccionalmente, por lo que no constituye vulneración de los citados preceptos ni de la jurisprudencia que la recurrente invoca la ponderación que realiza dicho Tribunal de la prueba y la afirmación a que ésta le lleva, para fundamentar su decisión, al constatar que «dicho camino es usado de forma regular y sirve de acceso a la vivienda de los recurrentes y de los restantes vecinos que la tienen ubicada en las inmediaciones, por lo cual no puede calificarse de adecuado y oportuno el cierre de un camino que es utilizado por los vecinos» [frente al desuso del que parte el Ayuntamiento para justificar la oportunidad de su desafectación]...".

Idazkaritza Saileko AOTaren2020ko otsailaren 10eko txostenean eta proposamenean argi justifikatu da oportunitatea eta beharizana.

- **Entzunaldi publikoa egitea:** Espedientea ebatzi baino lehen hilabeteko informazio publikoa egon behar da.

Informazio publikoa zabaldu zen 2020ko otsailaren 24ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta epe hori ekainaren 11n amaitu zen.

Ekainaren 12ko idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariaren txostenean esaten den moduan epe horretan ez da alegaziorik jaso.

- **Eskumena duen organoa zehaztea:** Osoko bilkura dauka eskumena udal ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzeko.

- **Beharrezko gehiengoa zehaztea:** Osoko bilkuraren erabakia gehiengo osoz hartu behar da. Hau da, beharrezkoa da Osoko bilkurako kideetatik bederatzik baiezko botoa ematea.



Idazkaritza Sailea. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 25/06/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/06/2020
12:19:14

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0017
Data: 10/02/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E400046C8B00K5N9M3U2Q2Z8

- **Harrera formala egitea:** Osoko bilkurak ondarezko ondasun moduan harrera formala egin beharko du. Harrera formal hori egin arte ondasunok jabari publikoko izaera izango dute.

- **Ondasunen inguruko emakiden egoera:** Gaur egun kasinoko ondasunen inguruan dauden emakiden epeak bukatuta daude. Beraz, emakida horiek azkendu behar dira. Hori guztia, Administrazio Publikoen Ondarearen inguruko Legearen 100. Artikuluaren arabera. Artikulu horrek dio emakidak azkenduko direla hurrengo arrazoientatik:

c) Caducidad por vencimiento del plazo.

h) Desafectación del bien, en cuyo caso se procederá a su liquidación conforme a lo previsto en el artículo 102 de esta ley.

Beraz, epea bukatuta dagoenez, emakida horiek lehen bai lehen azkendu behar dira.

Ondorioak

Lehena.- Orain arte jarraitutako prozedura eta erabaki proposamena legezkoa da.

Bigarrena.- Kasinoko kalifikazio juridikoaren aldaketa osoko bilkurak erabaki beharko du, gehiengo osoak (9 kidek) baiezkota botoa emanda.

Hirugarrena.- Ezinbestekoa da Osoko Bilkurak ondasunaren harrera formala egitea, kasinoko eraikinean dauden lokalen kalifikazioa ondarezkoa izateko.

Laugarrena.- Gaur egun kasinoan dauden emakidak azkendu egin behar dira.



Idazkaritza Saia. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 25/06/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/06/2020
12:19:14

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0017
Data: 10/02/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E400046C8B00K5N9M3U2Q2Z8

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe.
Hori horrela, Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.


Bermeon, orri oinean zehaztutako datan

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia



Idazkaritza Sailea. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E400046C8B00K5N9M3U2Q2Z8</p>	<p>Sinadurea eta data</p> <p>JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 25/06/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/06/2020 12:19:14</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2020IDA_ERA_0017 Data: 10/02/2020 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
---	--	--	---

